

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrek, **2026ko urtarrilaren 22an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

"3.- Pertsona langabetuak kontratatzeke 2025eko dirulaguntza deialdia hutsik uztea 2025ZDK00017.

Alkatearen 2026ko urtarrilaren 19ko proposamenak honela dio:

" Unai Kortabarria jaunak (Udal Sozioekonomia Teknikariak eta batzordeko idazkariak) urtarrilaren 15ean egindako txostenean (CSV zkia: ESKU11c1ccf2-c482-4f98-865e-84b743530260) honako proposamena egin du:

Espediente zk.: 2025ZDK00017

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: ZDKO Udalak emandako dirulaguntzak

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartu zituen pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntza oinarriak.

Bigarrena.- 2025eko martxoaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzordean onartu zen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen 2025eko deialdia eta 2025 aurrekontu ekitaldiari dagozkion dirulaguntza deialdirako, hamabost mila euroko (15.000€) gastua baimentzea.

Hirugarrena.- 2025eko deialdia apirilaren 9an, argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea hurrengo egunean hasi eta 2025eko azaroaren 28an amaitu zen.

Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea igarota, ez da eskaerarik jaso.

Aurrekariak horiek kontuan izanda eta gaiari buruzko azalpenak Sozioekonomia Batzordean eman ondoren, honako **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

ESKUca487ef3-34d0-41a1-907e-6bc5a0ca8ac7

Lehenengoa.- Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia hutsik uztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko go-bernu batzarrek aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.”

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025ZDKO0017-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)